

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Baztango esperientzia

EGILEA:

Eneritz Rekarte Bengoetxea

DATA:

2018/05/17



Aurkibidea

1. Nola antolatzen ari zarete euskaraldia euskararen arnagune eta bailara den Baztanen? Zein ezaugarri eta funtzio izango ditu Euskaraldiak Baztanen?	1
1.1. Herri ttiki euskaldunen garrantzia	1
1.2. Ahobizi eta belarriprest rollak	1
1.3. Eskualdea (Baztan, Bortziriak eta Malerreka).....	2
1.4. Orain arte egindakoa	2
1.5. Eta hemendik aitzinera, zer?.....	2
2. Zein ari da izaten Baztango Udalaren rola euskaraldiaren antolakuntza eta zabalkundeetan?	3
2.1. Baztango Udalaren proposamena.....	3
2.1.1. Baliabideak	3
2.2. Herritarren parte hartzea.....	3
2.3. Ikerketa soziolinguistikoa	4



1. Nola antolatzen ari zarete euskaraldia euskararen arnasmune eta bailara den Baztanen? Zein ezaugarri eta funtzio izango ditu Euskaraldiak Baztanen?

Baztan euskararen arnasmune dugu eta %80a euskalduna da, aldiz, erabileraren datuei erreparatuz gero alde nabarmena dagoela konturatuko gara. Azken kale neurketaren arabera %60eko erabilera dugu Baztango kaleetan. Hala ere, aipatu behar dugu, oro har, herri ttikietan euskara gehiago erabiltzen dela, hala nola, Berroetan %85,1, Amaiurren %82,2... Herri handietan aldiz erabilera franko jausten da, Elizondon adibidez, %50,6koa da.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra: *Baztango hikuntza-erabileraren kale neurketa*, 2015.

Kontziente gara Baztan arnasmune izanik bertze trataera bat eman beharko diogula. Gure errealitateari erreparatu eta ekimena gurera egokitzen saiatu gara.

1.1. Herri ttiki euskaldunen garrantzia

Herri ttiki euskaldunek ere paper garrantzitsua izanen dute Baztango Euskaraldian. Ziurrenik, herrian, egunerokotasunean euskaraz arituko dira anitz. Hala ere, hauen parte hartzea bailararentzat ezinbertzekoa izanen dela erakutsi eta transmititu behar dugu.

Alde batetik, Baztanek bailara moduan funtzionatzen du, Baztango Udala da horren adibide. Gure helburua herritarrek aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea da eta horretarako konplizeak beharko ditugu. Proiektu honek sinesgarritasun eta indar handiagoa izanen du Baztandar guztiek parte hartzen badute. Beraz, nahiz eta herri ttikietan eragina ttikiagoa izanen den, hauen laguntzaz herri ez hain euskaldunetan eragina handiagoa izatea lortuko dugu.

Bertzalde, Euskaraldia Euskal Herrian burutuko den ekimena da. Beraz, Baztandik kanpo ere, herritarrek konpromezua izanen dute elkarrizketak euskaraz izateko (ahobizi edo belarriprest rollean) berdin Iruñean zein Donibane-Garazin. Planteamendu hau seguraski herritar batzuentzat berria izanen da eta ez da lan makala izanen. Berdin dio pareko solaskidea txinatarra, kubatarra... edo nongotarra den, ahobizien kasuan, euskaraz egin beharko baitute lehen hitza. Eta belarriprestak adi eta jarrera aktiboarekin egon beharko dira Baztandik kanpo ere, elkarrizketa elebidun edo nahiz izanez gero euskaraz aritzeko.

1.2. Ahobizi eta belarripresten rollak

Herritarren lehen eginkizuna belarriprest edo ahobizi izan nahi duten erabakitzea da (kontziente izanik figura bakoitzak duen eginkizunaz). Erronka honetan gutxienez euskaraz ulertzen duten pertsonen parte hartuko dute. Euskararen alde egotetik euskaraz egitera pasatu ahal izateko, oinarritzkoa baita.



Ahobiziek deserosotasun, beldurrak, kezak... gainditu eta euskara ulertzen duten solaskide guztiekin euskaraz eginen dute, eta ezagutzen ez dutenei lehen hitza euskaraz. Kontutan hartzen badugu Baztanen %80a euskaraz moldatzen dela lasai aski aritzen ahalko dira euskaraz, ahobiziek ezustekoren bat izanen dute espero ez zutenak euskaraz ulertzen dutelako eta elkarrizketa elebidunak zein euskarazkoak izatea lortuko dutelako (lehenago pentsaezina zena).

Belarriprestak ahobiziak euskaraz aritu ahal izatzeko ezinbertzeko konplizeak dira, hauei esker elkarrizketa elebidunak edo euskaraz izanen baitira, belarriprestak ahobiziak bezainbertzeko garrantzia izanik. Baztango kasuan, ostatuetakoz zerbitzari anitz irudikatzen ditugu hemen. Gai dira euskaraz ulertzeko (bi kafe, garagardo bat, zenbakiak...) eta posible dutenen kasuan ere euskaraz erantzuten baitute. Esparru hauetan euskaraz egin ahal izateak (edo elkarrizketa elebidunak naturaltasun osoz suertatzeak) inpaktu handia izanen du jendearengan eta ondorioz, erabileran.

1.3. Eskualdea (Baztan, Bortzirriak eta Malerreka)

Eskualdeko herri bakoitzak bere erritmo eta lehentasunak ditu. Hala ere, guztiok elkartu ginen elkarren berri izateko, eta ahal den neurrian elkarlanean aritzeko (nahi eta herri bakoitzak bere euskaraldia garatuko duen). Eskualdeak soziolinguistikoki antzeko ezaugarriak ditu eta aberasgarria da elkarri ekarpenak egiteko eta egindakoaren berri emateko. Tokiko hedabideek ere paper garrantzitsua jokatzen dute gurean, hiru eskualdeetan informazioa zabaltzen lagunduko baitigute (Ttipi-ttapa, xorroxin eta xaloa).

Ahoz ahokoak indar handia du gurean eta honek ere eragina izanen duelakoan gaude.

1.4. Orain arte egindakoa

Hasieran gure lehen helburua Baztango euskalgintza berriz martxan zegoela erakustea zen, herritarrek mugimendua zegoela somatzea. Abenduak 3, euskararen eguna, aitzakiatzat harturik egitasmo xumea antolatu genuen.

Euskaraldiaren aurkezpena

Bertze lekuetan ez bezala, guk prozesua alderantziz bizitu dugu. Hau da, hasieran dinamizatzailearen kontratazioa egin zen, eta ondotik aurkezpena. Bertan 40 lagun bildu ginen eta talde motorra handitzea lortu genuen. Hainbertze jende bildu izanak gibeletik egin den lanaren erakusle da.

Formazio saioa

Taldeak erritmo polita izan du, baina hainbat gabezia genituela ikusirik, formazioa jasotzea erabaki genuen. Egitasmoaren oinarri teorikoak ezagutzeko, komunikazio estrategiak lantzeko, herritarren saretze-lanak kudeatu eta gure buruak prestatzeko. Formazio honetara eskualdekoak gonbidatu genituen: Malerrekakoak eta Bortziritakoak.

1.5. Hemendik aitzinerat, zer?

Girote-lanak alimaleko garrantzia du guretzako. Horretarako hainbat ideia ditugu:

- Guk sortutako bideoak: Jendea identifikatuta sentitzeko egunerokotasunean gertatzen diren aferak bideo baten bidez adierazi nahi ditugu. Herritarren laguntzarekin elkarrizketa elebidunak ikustarazi, edozein os-



tatu edo dendetan lehengo hitza euskaraz egiteak duen onura (orain arte gaztelaniaz mintzatzen zinen ostalariak euskara ulertzen duela konturatu zara).

- Herriko bestetan, banderolen bidez euskaraldia presente egonen da, irudia ezaguna egiteko.
- Tokiko hedabideetan elkarrizketak
- ...

2. Zein ari da izaten Baztango Udalaren rola Euskaraldiaren antolakuntza eta zabalkundean?

2.1. Baztango Udalaren rola

Baztango Udalak hasieratik proiektua berea egin zuen, Baztango euskalgintza nahiko lasai zebilen eta hau beraktibatzeko nahiarekin, euskaraldiaren proposamena gurera ekartzea erabaki genuen. Proiektu berria eta gainontzeko ekiko ezberdina zela iruditu zitzaigun, bertze lekuetako emaitzak ikusirik, parte hartu nahi izan genuen. Beraz, euskaraldia aitzakitzat hartu dugu euskarari astindu bat eman eta euskaldunak aktibatzeko.

2017ko udazkenean dinamizatzaile bat kontratatu genuen, talde berri bat sortzeko nahiarekin, orain arte euskalgintzan parte hartu duten herritarrez gain aurpegi berriak nahi genituen, eta horretan ibili zen dinamizatzailea. 2018an lan taldea osatua martxan dugu eta urte hasieran dinamizatzailearen beharrik ez genuela erabaki genuen, lan taldearekin aitzinera segitzeko moduan ginela. Hala ere, 2018ko irailetik aitzinera dinamizatzaile baten beharra aurreikusten dugu, orduan lan karga handia izanen baitugu eta herritarrek euskaraldiaren erreferente bat izan dezaten.

2.1.1. Baliabideak

Lan taldean euskara teknikaria eta udalak kontratatutako dinamizatzailea gaude eta horretarako udalak baliabide ekonomikoak jarri ditu (dinamizatzailearen kontratazioa, formazio saioak, ekitaldiak...)

Baztango Udalak hasieratik proiektua berea egin izateak sostengua eta sinesgarritasuna eman dio, hori aurkezpenean eta jendearengana hurbiltzerakoan antzeman dugu.

Nahiz eta proposamena udaletik etorri zaigun, herritarrak parte hartzen ari dira eta lan talde arras langilea dugu, beraien laguntzarik gabe ez baikenuke deus ere lortuko. Beraz, momentuz, herritarren aldetik erantzun positiboak jasotzen ari gara.

2.2. Herritarren parte hartzea

Talde motorrean Baztango udalaren izenean euskaraldiako dinamizatzailea eta euskara teknikaria ari gara. Horretaz gain, ikastolako eta eskolako irakasleak, aek-ko irakasleak, xorroxin irratikoak, euskalgintzan ibilitako herritarrak, herritar gazte zein helduak... gaude. Momentuz talde bakarra osatzen dugu eta erabaki guztiak bertan hartzen ditugu. Hala ere, irailetik aitzinera taldea handitzea aurreikusten dugu eta eginkizun ezberdinetarako taldetxoak osatzea.

Formazio saiora lan taldeko kideez gain jende gehiago hurbildu zen, interesa eta jakinmina dagoela somatu genuen. Beraz, irailean taldea handitzeko deia eginen dugu. Ahal dela, Baztanek 15 herri izanik, herri bakoitzeko ordezkari bana lortzea gustatuko litzaiguke. Beti ere, fokoa galdu gabe, herri handienetan proiektu hau garatzeko behar handiagoa baitute eta horietan pertsona bat baino gehiago beharko genuke lanerako.



2.3. Ikerketa soziolinguistikoa

Baztango Udalak euskaraldiak Baztanen izan duen eragina neurtu eta baloratzeko ikerketa soziolinguistiko bat egi-
tea aurreikusi du. Batez ere datu objektiboetan oinarritu nahi dugulako eta ez suposizio edo usteetan gelditu.